

## Oinarrizko informazioa

Datuen babesari buruzko Europar Batasunaren Erregelamendu orokorrean (“DBEO”) jasotakoarekin bat, jakinarazten dizugu Iguatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros (“IMQ”), Kutxabank, S.A. eta Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. konpainiek tratatuko dituztela, erantzunkide gisa, dokumentu honetan ematen dizkiguzun datu pertsonalak zein aurrerantzean emango dizkiguzunak, Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. eta IMQ konpainiek sinatutako banaketa-hitzarmenean jasota dagoen eran eta honako xehetasun hauen arabera:

### 1. IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratazioa eta aseguruaren kontratuaren ondoriozko harremana kudeatzea, bezeroei kalitate goreneko zerbitzua bermatzea, zure interesak hobeto babestea eta aseguruaren ondorioz sor litekeen edozein intzidentziaren jarraipena hobeto egitea.</li> </ul>
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Legezko obligazioak betetzea, kontratu-harremana betearaztea, interes legitimoa eta, beharrezkoa denean, baimena.</li> </ul>
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu medikoen emaileak, tratamenduaren arduradunak, agintariak, bankuak, finantza-entitateak, epaileak edo auzitegiak.</li> </ul>
Hirugarrenen datuak erabiltzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzuetan gerta liteke IMQk hirugarrenek jasotako zure datuak erabili behar izatea, osasun-zerbitzuak eman izanagatik sortutako datuak barne, datuak beharrezkoak baldin badira zerbitzuak fakturatzeko eta polizaren estaldura egiaztatzeko.</li> </ul>

### 2. KUTXABANK, S.A. eta KUTXABANK ASEGURADORA, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.U.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bezeroei bermatzea kalitate goreneko zerbitzua, euren interesen babes handiagoa, eta kontratu aurreko harremanaren eta/edo aseguruaren kontratuaren ondorioz sor litekeen edozein intzidentziaren jarraipen hobea.</li> </ul>
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Interes legitimoa.</li> </ul>
Datuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zuk zeuk emandakoak aseguruaren kontratua baino lehen, polizan, eta/edo kontratua harremanean zehar sortutakoak.</li> <li>Hartzaileari eta/edo hartzaile-aseguratuari buruzkoak.</li> </ul>
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu emaileek zure datuak erabili ahal izango dituzte.</li> <li>Zure datuak ez dira nazioarte mailan eskualdatuko.</li> <li>Zure datuak ez dira lagako.</li> </ul>

### 3. ERANTZUNKIDEEI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIO OROKORRA

<b>Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.</b>	
Eskubideak	Zure datuak erabiltzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, eramateko eta tratamendua mugatzeko eskubidea egikaritu ahal izango duzu, informazio gehigarrian adierazitakoaren arabera.
Informazio gehigarria	Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria eta xehatua kontsulta dezakezu hemen: <a href="http://www.kutxabank.com">www.kutxabank.com</a> (Aseguruak). <b>Irakurtzea gomendatzen dizugu.</b>

## Informazio gehigarria eta zehatza

### I. INFORMAZIO OROKORRA

Datuen babesari buruzko Europar Batasunaren Erregelamendu orokorrean (“DBEO”) jasotakoarekin bat, jakinarazten dizugu Iguatorialio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros, Kutxabank, S.A. eta Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. konpainiek tratatuko dituztela, tratamenduaren erantzunkide gisa, eskatzaile edo hartzaile eta/edo aseguru modura, egoera zein den, emandako datu pertsonalak, Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. eta Iguatorialio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros konpainiek sinatutako banaketa-hitzarmenean jasota dagoen eran.

Eskatzen zaizun nahitaezko eta ezinbesteko informazioa eman ezean, ezin izango da zurekiko kontratu aurreko eta/edo kontratu harremana garatu.

#### 1. Erantzunkideen identifikazioa

- (i) Iguatorialio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros (“**IMQ**”), egoitza Bilbon (Bizkaia), Máximo Aguirre kalea 18 (bis);
- (ii) Kutxabank, S.A. (“**Kutxabank**”), egoitza On Diego López de Haro kale nagusian, 30-32 (Bilbo, Bizkaia, Espainia); eta
- (iii) Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. (“**Kutxabank Aseguradora**”), egoitza Euskadi plazan, 5 (Bilbo, Bizkaia, Espainia).

#### 2. Interesdunaren eskubideak egikaritzea

Datuak babesteko araudiarekin bat erantzukide bakoitzaren aurrean zein kontra daukazun eskubideak alde batera utzi gabe, eskubide horiek egikaritzea errazteko eta sinplifikatzeko helburuz, erantzunkideek IMQ izendatu dute kontakturako gune komun. Xede horretarako IMQk jardungo du erantzunkideen izenean, honako helbide honetan: Bilbo (Bizkaia), Máximo Aguirre kalea 18 (bis).

#### 3. Datuak babesteko ordezkaria

Datuak babesteko ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan [dpd@imq.es](mailto:dpd@imq.es) helbidean.

#### 4. Datu pertsonalen tratamenduan daukazun eskubideak

Eskubidea duzu erantzunkideek egiazta dezaten zure datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez, eta, horrela izanez gero, zure datu pertsonalak erabiltzeko eta tratamenduari buruzko zenbait informazio (helburuak, trataturako datuen kategoria eta hartzaileak, beste batzuen artean) jasotzeko eskubidea ere baduzu. Halaber, datu okerrak zuzentzeko eskatzeko eskubidea duzu, baita datuak ezabatzeko ere, jaso zireneko helburuetarako beharrezko izateari uzten diotenean, esaterako. Zenbait egoeratan (adibidez, datuen zuzentasuna egiaztatzen den bitartean, eskatzaileak datuen zuzentasuna aurkaratu baldin badu), zure datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eska dezakezu, eta datuak erreklamazioak egikaritzeko edo defendatzeko baino ez dira erabiliko. Modu berean, zure datuak eramateko eskubidea duzu, hau da, zure datuak erabilera komunean eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jaso eta tratamenduaren beste arduradun bati helarazteko eskubidea duzu, aurreko arduradunak trabarik jarri gabe, legeak helburu horretarako aurreikusten dituen egoeretan.

**Tratamenduari edozein unetan aurka egiteko eskubidea ere baduzu, zure egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik, tratamendua interes legitimoan oinarritzen baldin bada. Egoera horretan, tratamendua bertan behera geratuko da, jarraitzeko arrazoi legitimorik egiaztatzen ez bada.**

Zure eskubideak doan erabil ditzakezu: (a) aurrez aurre IMQren edozein bulegotan; (b) postaz Bilbon (Bizkaia), Máximo Aguirre kaleko 18 (bis), (PK 48011) helbidean (Bezeroarentzako Arreta sailera zuzenduta); edo (c) emailaz: [imq@imq.es](mailto:imq@imq.es) helbidean (atxiki behar duzu beti zure NANren kopia irakurgarria edo zure nortasuna ofizialki egiaztatzen duen beste agiri bat).

Halaber, zure eskubideen egikaritzearekin ados egon ezean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzu.

## **5. Datu pertsonalak gordetzea.**

IMQ, Kutxabank y Kutxabank Aseguradora konpainiek zure datuak gordeko dituzte zurekiko kontratu-harremanak dirauen bitartean, eta, behin harreman hori amaituta, aplikagarriak diren zigor eta merkataritza arauen, eta arau zibil eta fiskalen iraungitze edo preskribatze epeak dirauen bitartean. Ondoren, ezabatu egingo dira.

## **II. IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS**

Informazio gehigarri honetan jasotzen ez den guztirako eta bertan jasotzen denaren kontrakoa esaten ez baldin badu, IMQren Datuak Babesteko Politika aplikatuko da. Hemen dago jasota: [http://www.imq.es/sites/IMQCorporativo/default/es\\_ES/Protección-de-Datos](http://www.imq.es/sites/IMQCorporativo/default/es_ES/Protección-de-Datos).

## **III. KUTXABANK, S.A. Y KUTXABANK ASEGURADORA, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.U.**

### **1. Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta legitimazioa**

Kutxabank eta Kutxabank Aseguradora konpainiek zure datuak tratatuko dituzte bezeroei kalitate goreneko zerbitzua, euren interesen babes handiagoa, eta kontratu aurreko harremanaren eta/edo aseguruaren kontratuaren ondorioz sor litekeen edozein intzidentziaren jarraipen hobea bermatzeko. Interes legitimoa da tratamendu hori legezko egiten duen oinarria, bezeroek euren datuak xede horietarako erabiliko diren arrazoizko itxaropena duten heinean.

Beste alde batetik, azkenean kontratu harremana formalizatu ez bada, zure datuak sei hilabetez gorde ahal izango dira, eta etorkizuneko balizko kontsultei edo eskaerei erantzuteko eta horiek kudeatzeko interes legitimoa izango da tratamendu hori legezko egiten duen oinarria.

Edonola ere, adierazitako tratamenduei aurka egiteko eskubidea erabiltzeko aukera duzu, aurretik azaldu den eran.

### **2. Datu pertsonalen kategoriak eta jatorria**

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratu aurreko eta/edo kontratuaren markoan zuri buruz hartzaile eta/edo hartzaile-aseguratu gisa jasotzen ditugunak dira. Zuk emandako informazioari dagokionez, aseguruaren kontratua egin aurretik emandakoak (aurrekontua, aseguruaren eskaera), polizan jasotakoak eta/edo kontratu harremanean zehar sortutakoak erabil ditzakegu.

### **3. Zure datu pertsonalen hartzaileak**

Zure datuak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunak, zerbitzu profesionalak emateko, datuak ostatzeko eta prozesatzeko eta sarearen eta informazioaren segurtasunerako zerbitzuak emateko.

Kutxabank eta Kutxabank Aseguradora konpainiek ez dituzte zure datuak nazioarte mailan eskualdatuko eta ez dituzte lagako.